GU GAITUZU OSKORRI

Gu gaituzu Oskorri
zuri, berde eta gorri
umorez gara etorri
zuen guztion pozgarri

ADIO KATTALINA

Goizean nintzen Santa
Klarako festetan
bai eta gau erditan
pena haundietan,
txoriño bat etorri
zitzaidan hizketan
gau hura izanen zela
gaiztoa benetan.

Txoria otoitzen haut
hago hor isilik,
ez otoi eni eman
bihotzean minik;
hik zer on duk ni mintzen
naukala jakinik
zer on duk niri hola
negar eraginik?

Jaun Komisarioa
herrira jin dela
abisu ematera
desertor nintzela,
zeruko Jainko jaunak
eman dezaiola
anitz miserikordi
hark eni bezala.

Hamabi granadierren
talde krudel hura,
azkar eraman naute
preso gaztelura
esaten zutelarik
ai hau zer malura,
soldadu gazte honen
azkena heldu da.

Adio Kattalina,
oi ene maitea!
Ene bihotz barneko
lili gogaidea,
ni eri nintzeneko
zu sendatzailea
penetan nintzeneko
kontsolatzailea.

Adio esaten diot
nik orain aitari,
adio batez ere
ama maiteari,
nik orain hil behar dut,
ez dago dudarik,
ezinen dut ikusi
anai-arrebarik.

HAURRAK

Haurrak, haurrak,
haurrak ederrak,
haurrak, nongoak zerate?
Espainiako Don Feliperen
seme-alabak gerade;
aurren gaixoa pasa liteke,
azken gaixoa preso de.

Haurrak, haurrak,
haurrak ederrak,
ai haurrak, nora zoazte?
Espainiako Don Feliperen
jauregira goaz eske,
intxaur gozoak omen ditu ta
gurekin etor zaitezte.

Haurrak, haurrak,
haurrak ederrak,
nondikan zatozte, nondik?
Don Feliperen etxetik gatoz
intxaurrik ez da oraindik,
balego ere, ai guretzako
ez omen da ezer handik.

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Euskal Herrian euskaraz
nahi dugu hitz eta jolas
lan eta bizi euskaraz eta
hortara goaz,
bada garaia noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.
Zabal bideak eta aireak
gure hizkuntzak har dezan arnas,
bada garaia noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.

| | |
|---|---|
| AINGERU BERGUICES | baxu, triki-trixa eta bonbardinoa |
| ANTON LATXA | 6 eta 12 sokako gitarra akustikoak eta boza. |
| BIXENTE MARTINEZ | gitarra elektriko eta akustikoa. |
| FRAN LASUEN | bibolina eta boza. |
| JOSE RAMON FERNANDEZ | alboka eta xirula. |
| NATXO DE FELIPE | akordeoi, gitarra eta boza. |
| POLIN GURREA | flauta eta saxofoia. |
| XABIER LAKUNTZA | dultzaina. |
| JOSE LUIS FRAILE | dultzaina. |
| BEÑAT AMORENA | perkusioa. |
| BEGO GONZALO | Klarineta. |
| OSKORRI | Konponketak |
| JEAN PHOCAS | grabaketa teknikoa |
| PEDRO ZARRABEITIA | fotoa |
| BITTOR ALLENDE | azala |
| JOSEPE ZUAZO | esku izkribua |
| CHRISTIAN ORSINI | Kortea |

Euskal Herrian euskara
hitz egiterik ez bada
bota dezagun demokrazia
zerri askara
geure arima hiltzen uzteko
bezain odolgalduak ez gara.
Hizkuntza gabe esaidazue
nola irtengo naizen plazara,
geure arima hiltzen uzteko
bezain odolgalduak ez gara.

Euskal Herri euskalduna
irabazteko eguna
pazientzia erre aurretik
behar duguna;
ez al dakizu euskara dela
euskaldun egiten gaituena?
Zer Euskal Herri litzake bere
hizkuntza ere galtzen duena.
Ez al dakizu euskara dela
euskaldun egiten gaituena?

NAFARROA

Bai hotza eta ubela
heriotzaren dolu gela
Gurean dugu gaubela
gaua bezain egun goibela

Ama kendu digute
jaiotzen ari ginela,
gero diote gure
etxea ere ez dela.
Gurean dugu gaubela
gaua bezain egun goibela.

Gure kondairaren zama
haize arrotz batek darama.
Ez etxe eta ez ama!
Hustu dute gure izana.
Ai zer tristea etxe
ama kendu diotena!
Etxerik gabe ere
oi ama, zer itomena!
Ez etxe eta ez ama!
Hustu dute gure izana.

Nafarroa, Nafarroa!
Gure etxeko abaroa.
Arranoa, arranoa!
Amarik gabe nora hoa?
Aralartik Irati
haritza eta pagoa.
Bera ere bi zati
eta josirik ahoa.
Arranoa, Nafarroa!
Etxerik gabe nora hoa?

KALERA NOA IHESI

Ni bizi naiz baserrian
animalien erdian,
bertsotan kontatuko dizuet
mundu guztiak dakian
nola nagoen mendian
bizidunen hilobian.

Jaikitzen naiz egunero
oilarrak jo eta gero.
Lanetik eta lanera beti,
nola ninteke hain ero!
Kalera aldegin edo
sartuko naiz gerrillero.

Lanez banago asea
ordaina ez da luzea.
Mendi goietan egonagatik
hauxe da nire leizea;
emaidazu guraizea
urra dezadan haizea.

Kalera noa ihesi
neure gurdi eta guzi.
Ez naiz menturaz han ere ongi
ibiliko lendabizi,
baina ez ninteke bizi
baserrian bezain gaizki.

Agur baserriko mendi,
hil arteko urkamendi!
Hiltzeko bada ere zugana
berriro itzul banendi
munduna ez dabil ongi
edo nauzu ero haundi.

Adio Kattalina

oskorri

elkar s.a.